



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2010-06-17**

VIII. URTEA 2.029. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**XABI ALONSO** FUTBOLARIA

## «Final-zortzirenetan Brasilen kontra ez jokatzea aukeratuko nuke»

**TOLOSA** Espainiako selekzioarekin partida gehien jokatu dituen 11. jokalaria da; une honetan Hegoafrikan dago

**MUNDUKO KOPA** Txapelketako lehen partida jokatu zuen atzokoan; Suizak 1-0 irabazi zion Espainiari **4-5**



Pagola, Lazkano eta Altuna izan ziren lasterketa iragartzeko ardura izan zutenak. **E. MAIZ**

## **NESKEN TXIRRINDULARITZA PROBA IGANDEAN**

**KIROLA** Gipuzkoako Txapelketa izango da 10:00etatik aurrera Villabona eta Zizurkil artean; kadete, junior eta elite mailak ariko dira **7**

## **Txikonek 14 enbor moztuko ditu Alaba Kuttun izendapenean**

**TOLOSA** Etzi izendatuko dute Edurne Pasaban ofizialki Alaba Kuttun eta hori dela eta ekitaldi berezia antolatu dute udaletxean **2**

## **Kulturari eskainitako asteburua izango dute honakoa**

**HERNIALDE** Bihar Koke Lasak 'Shisha Pangma Bide Britaniarra' hitzaldia eskainiko du eta larunbatean asto jatea ere egingo dute **7**

**G** **Gutunak****Illargi Coupage, eskertza**

Illargi Coupage aste gastronomikoaren antolatzaileok eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen hau posible egiten lagundu duten guzietei. Eskerrak bereziki familiari, lagunei eta boluntarioei, txartel zerbitzua, pintxoaren zonaldea, musika, dekorazioa, elektrizitatea, iturgintza, arropen diseinua edota Chill-Out zonaldean laguntzeagatik. Baita, Insalus, Errotatxo okindegia, Tolosa & Co, argazkilariak, margolariak eta Ergobikart-i, eskerrak.

Aipamen berezia merezi dute Peñascal Fundazioko zerbitzariak eta irakasleak, lan bikaina eta profesionala egiteagatik eta bihotzera iritsi zaigun giza kalitatea erakustekoagatik. Halaber, eskerrak eskualdeko komunikabideei emandako laguntzeagatik eta ekimena zabalteko eginiko lanarengatik.

Parte hartu duten hostalaritzako kideei ere, nola ez, eskerrak berroena: upategiak, jatetxeak, gozotegiak, gozo-dendak... beraiek gabe ez zelako Illargi Coupage posible izango.

Eta ezin ahaztu erakundeak, lehen lekuan Tolosako Udala egongo litzatekeelarik. Eta, baita, Tolosaldea Tour bulegoa, eginiko lan eskergarengatik. Eusko Jaurlari-

tza ere aipatu behar dugu, eta zehazki Turismo Saila, gure lana kontuan hartzeagatik, eta bertako saileko zuzendariaren bisitarekin saritzeagatik.

**Illargi Coupage ekimeneko antolatzaileak.** Tolosa.

**Kultura sortzaileak**

Azaroan prentsa bidez jakin zen moduan, Tolosako Udalak San Esteban-Laskorain Goikoa proiektua abiarazteko agindua eman zuen. Proiektu hau Tolosak bizi izan duen proiektu urbanistikorik handiena izango litzake. Orduan, gobernu batzordeak ingeniari-tza eta arkitektura enpresa batzuei emandako proiektu honen esleipena. San Esteban auzoaren hainbat eraikitzen eraisketa planteatzen da, baita trenbideen lurperaketa ere, proiektu handizale hau aurrera eramateko asmoarekin.

Agian, herriko zabalkunde natural baten barruan, zonalde honetarako plan berezi bat beharrezkoa izan daiteke. Bertan alokairuzko etxebizitza sozialak eraiki beharko lirateke, beste azpiegitura publiko batzuen artean. Orain dauden eremu berdeak zonaldeko hirigintzan egokitu, lur-

zoru deprimituak birlortu eta gutxi erabilitako edo azpi-erakuntzan dauden espazioak ere berreskuratu, tolosarren erabilerarako.

Hau ez da auzo honen 16. zenbakian dauden 3.780m<sup>2</sup>-en egoera. Hau da Tolosan momentu honetan bizitza gehien duen eraikina, eta herriko ezagunena bere lur eremutik kanpo, norbaiti gogaikarri egiten bazaio ere. Euskal geografian esparru-ludikoen kudeaketa eredu alternatibo bezala erabiltzen dena. Arte garaikide, alternatibo eta underground-aren diziplina kultural ezberdienten tenpluetako bat. Autogestioaren eredu nazioko mugimendu sozialetan. Noski, Bonbereneaz hitz egiten ari gara.

Hau bera pentsatzen du Tolosako Udalak, «oso garrantzitsu bezala hartzen baitu kolektibo sozial honek egiten duen lana» (DV 2009/11/07 ikusi). Wikipediak ere, Interneteko entziklopediarik erabili eta famatuena, Tolosaz hitz egiten duenean bere arlo kulturalen, Bonberenea erreferente kulturaltzat hartzen du.

Orduan, zergatik auzoaren etorkizuna Bonbereneak eta bizilagunek pentsatzen dutenari bizkar ematen planteatzen da? Zergatik inposatzen da antolaketuzko eredu bat mugimendu kultural

honi? Zergatik aldatu behar da erreferente bat ondo doanean?

Bonbereneak lan sozial garrantzitsua betetzera bultzatu duen ereduak, ezin du derrigorrez kanpotik datorren esku-sartzerik izan mugimendu honen barnean hartzen diren erabakietan. Arrazoi honengatik Bonbereneak ez du diru-laguntzarik jaso. Hau bukatzen bada eta Udalak —azpiegituraren jabe bezala— mugimenduari barne erabakietan parte hartzen bada, nahi ez bada ere, erreferente honekin bukatuko du.

Bonberenea publikoa da jadanik, edozeinek du lan egiteko, iriztiak emateko eta erabakietan parte hartzeko eskubidea.

Udalak espazio sozio-kultural honen eta bere ingurunearen birgaikuntza proposatu beharko zuen, esku-sartzerik gabe eta erantzukizunean auzoaren berrikuntzaren proiektu orekatua aurkeztuaz.

HF arquitectos SLP, Endara ingenieros asociados SL, eta ALD Ingenieria, Arquitectura y Equipamientos SLP, San Esteban plan bereziaren erredakzio proiektuaren arduradunak proposatzen diegu: beraien talentua erakustea eta proiektu integratzaile bat aurkeztea oraingo Bonberenea auzo

berrian jarraitzeko. Bizikidetzan, etorkizuneko erronkei aurre egiteko eraikin dinamiko eta eraberritu bat izan dadin. Gainera, Bonberenea osatzen duten pertsonak eta erabiltzaileak Tolosako edozein mugimendu bezala proiektu hau ordaintzen dute ere.

Litekeena da Udalak ez badu arrazoitzen, mugimendu honen aurka erabiliko duela ehunka etxebizitzaren eraikuntza tolosarren aurrean, Bonberenearen etorkizuna egin eta desegiteko. Bi azpiegiturak kontrajarriak egongo balira bezala.

Erakutsi ezazue, bertako Udala gobernuko batzordeko jaun eta andreok, zuei buruz «jainkoari erregutuz eta zementuarekin birrinduz» esaten dutenak nahastuak eta oker daudela, ala ezingo zenukete?

**Bonberenea.** Tolosa.

**Alaba Kuttun izendatuko dute etzi Edurne Pasaban**

**Kirola** » Eguerdian izango da izendapen ekitaldia udaletxean; Alex Txikon mendigoizaleak 14 enbor ebakiko ditu aizkorarekin.

**ERREDAKZIOA**

Hamalau zortzimilakoak igo ostean, hainbat sari eta izendapen eskaini dizkiote Edurne Pasaban mendigoizaleari. Horietako bat Tolosako Udalak eman dion Alaba Kuttunaren izendapena da, eta etzi jasoko du ofizialki.

Udaleko batzar aretoan egingo dute ekitaldia 12:00etan. Bertan, erakunde publikoetako hainbat agintariz gain, mendigoizaleen munduko pertsona ospetsuak ere egongo dira. Edurne Pasabanen espedizioi de batzuk ere bertan izango dira Asier Izagirre, Nacho

Orviz, Pablo Diaz Munio eta Ferran la Torre, besteak beste.

Ekitaldi ofizialera sartzeko gonbidapena beharrezkoa izango dela adierazi dute; baina, dena den, bertan sartu ezin dutenek Tolosako Udaleko web orritik ([www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)) ere egin ahaliko dute jarraipena, Internet bidezko zuzeneko emankizuna egingo baitutete.

**Ekitaldi ugari**

Ekitaldiaren aurretik eta ondoren egitarau oparoa prestatu dute giroa alaitzeko. Hala, izendapen ekitaldia hasi aurretik, buruhandiek eta erraldoiek kalejira egingo dute Alde Zaharrean. Ondoren, 13:00ak aldera, Tolosa & Co merkatarien eskutik, haurren marrazki lehiaketaren sari banaketa egingo dute Plaza Zaharrean.

Hamalau gailurrak iruditze

ko ekitaldi berezia prestatu dute, eta hori marrazki lehiaketaren ostean izango da. Hain zuzen ere, Alex Txikon Edurne Pasabanen espedizioi de botak eta pioleta alde batera utzi eta aizkora hartuko du, eta 14 zortzimilakoen ordez, 14 enborretara igo beharko du. Aizkolari lanean arituko da, beraz, Pasabanen ibilbidea erreparatzen den bitartean.

**Nepaleko jakiak aukeran**

Bestalde, herritarrek ikuskizunaz gozatzen ari diren bitartean, Nepaleko jaki ohikoak osaturiko luntxa dastatzeko aukera izango dute Plaza Zaharrean bertan, Tolosa Gourmeten eskutik (Larrea eta Mujika). Nepaleko menuan ohikoak diren dilista zopa (Rapida Dal) eta barazki gisatuak arraultz fideoekin (thakpu barazkiak) sukaldatuko dituzte.

**Nazioarteari buruzko tailerra «bikain»**

**GIZARTEA** » Apirilaren 12tik ekainaren 14ra bitarte Nazioarteko gaurkotasunari buruzko tailerra izan da Topic-en Jesus Torquemada kazetariaren eskutik. Ikastaro hau Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuan dagoen Ikastri zerbitzuak antolatu du. 10 saio izan dira denera, eta 216 lagunek hartu dute parte, beraz, antolatzaileak «oso gustura» daude. «Oso interesgarria izan da, eta parte-hartzaileak oso gustura geratu dira». Ekialde Hurbila, Amerika eta Europa aztertu dituzte, eta Afrika eta Asia datorren urteko otsaila eta martxoan lantzekotan geratu dira, 6-8 saiotan. HITZA

**Beti alai**  
jatekoa

**Garaian garaiko janariak**  
Arraikieta berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta baliagatzea banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

## Topic-en 'Panpina bizidunak' ikusteko aukera egongo da

**Kultura** » Telebistako hainbat panpinekin osatu dute erakusketa; GKO Gallery-n berriz, Pixel Panchoen txanda iritsi da.

### ERREDAKZIOA

Tolosako Jaien aurretik kultur ekitaldi egarritz dabilenak, aukera falta behintzat ezin du aitzakia bezala erabili. Horren adibide garbia dira erakusketak. Egun hauetan ari duen euariak ugalduta izan balitu bezala, ondorengo egunetan bada zer ikusia han eta hemen.

**'Panpina bizidunak' Topic-en** Bihartik irailaren 23ra bitarte, Topic zentroan erakusketa berri bat egingo da ikusgai. Asteazken zehar 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik Topic. Asteburu eta jailetan berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**Panpina bizidunak** erakusketa, Muñecos Animados enpresak 30 urteko ibilbidean egindako lan nagusien errepaso da. Antzerki, zinema, telebista eta publiziterako hainbat pertsonaia sortu ditu enpresa honek bere jarduna hasizue-



'Los lunnis'-eko pertsonaia Topic-zentroan egongo dira. HITZA

netik, eta zeregin horretan oinarritutako 65 piezako bilduma eta ikus-entzunezko 6 muntaiak jarriko dira ikusgai Tolosan.

Erakusketarako hautatutako lan gehienak garai berrienekoak dira, ikus-entzunezkoen sektoreko lanak nagusitu diren garaikoak alegia. *Gomaespuma* (Telecinco 1994) eta *Los Patata* (TeleMadrid, Canal Sur, Canal Castilla la Mancha 2008) saioetarako pertsonaia, *Mortadelo y Filemón* (2001) filmekoak edo *Los Lunnis* (TVE) panpinak daude horien artean, baita hain ezagunak ez diren baina plastika berritzailegatik eta

garapen teknikoagatik era berean interesgarri diren beste hainbat ere. Erakusketaren osagarri, bideoak proiektatuko dira, emanaldienak, eraikuntza prozesuenak eta animazio teknikenak.

### Pixel Pancho GKO Gallery-n

Topic-en bezala, GKO Galleryn ere erakusketa berria jarriko dute etzi. Pixel Panchoen erakusketa uztailearen 24ra arte egongo da zabalik eta ikusi nahi dutenek, ondorengo ordutegiari begiratu beharko diote: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; asteartetik igandera.



Mozart eta Alaska ere Tolosako Topic zentroan egongo dira bihartik aurrera. HITZA

## Bidezko merkataritza sustatuz

**Gizartea** » Tolosako Kultur Etxean 'Black Gold' dokumentala ikusteko aukera egongo da gaur 20:00etan.

### ERREDAKZIOA

Bidezko merkataritzaren inguruko ekimena antolatuta du Alboanek. Lehenik dokumental bat ikusiko dute eta ondoren, Setem Hego Haizea-k dinamizatuta, hitzaldia egongo da.

*Munduko txokoa* izeneko ekimena eta bere barneko ekitaldiak gaur bertan izango dira Tolosako

Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera.

### 'Black Gold' dokumentala

Alboaneko kideek honela aurkeztu dute gaur ikusgai egongo den dokumentala: «Gosarian edo bazkal ostean hartzen duzun kafearen atzean zer dagoen jakin nahi duzu? Etiopian kafearen laborantza zenbat nekazarri bizi irauten diren jakin nahi duzu? Dokumental honen bidez transnazionalak duten benetako boterea ezagutzera auzartzen zara? *Black Gold*-ez (Urre beltza) hitz egiten dizugu. Marck Francis eta Nick Francis-ek zuzendua eta ekoiztua, nekazari-ek

kafe grano bakoitzeko jasotzen duten diru kopurua gero eta urriagoa dela kontatzen digute, euren kontura beste norbait aberasten den bitartean».

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Pefiñsolan etxebizitza alokatzen da. Abuztuaren 16tik aurrera, itsas ertzean. Igerilekuak, toboganak, tenis zelaia... Telefonoa: 943 65 42 44 / 690 06 76 45.

## Laburrak

### Jose Mari Sasieta-aren argazki proiektzioa, gaur

**ARGAZKILARITZA** » Tolosako EPAn, Igaralde kalean, Jose Mari Sasieta-aren argazkien proiektzioa eskainiko dute gaur 17:30ean. Sasieta-aren blogean ikus daitekeenez, argazki-lariak gaitzat naturako elementuak, bere ingurunea eta argia bera ere hartu izan ditu. Halduen Hezkuntza Iraunkorreko zentrotik, gonbitea zabaldu dute.

### Kultur Tailerreko ikasleek lanak Aranburu jauregian

**ESKULANAK** » Tolosako Kultur Tailerreko ikasleak gogor aritu dira lanean ikasturte guztian zehar. Egingo dako lana gaurtik aurrera ikusgai egongo da Aranburu jauregian. Inaugurazio ekitaldia 19:30ean egingo dute. Jaiegunetan eta astelehenean izan ezik, koadroak, zeramika lanak, argazkiak... ikusteko aukera zabalik egongo da Aranburu, 17:30etik 20:30era.

### Tolosa Kupeko finalerdia larunbatean Usabalen

**FUTBOLA** » Tolosa Kup 2010eko bigarren fasea iragan astean amaitu zen. Gauzak horrela, hilaren 19an, larunbatean, finalerdietako partidak jokatuko dira Usabal kiroledegian. 16:00etan Uzturre eta Amets Tabernaren arteko lehia jokatuko da eta 17:00etan, 30 Xentimo eta Celtic Powers-en artekoa. Finala ekainaren 25ean jokatuko da Usabalen 20:00etan.

### Araba Euskarazera joateko autobusa atara dute

**EUSKARA** » Galtzaundi Euskara Taldeak Agurainen ospatuko den Araba Euskarazera joateko autobusa atara du. Ekainaren 20n, igandean, 09:00etan irtegarria da eta itzulera ordua 19:00etarako jarri dute. Izena eman nahi dutenek Galtzaundira joan beharko dute.

### Zine foruma gaur 19:15ean eta 21:45ean

**ZINEA** » Zine forumaren baitan, jatorrizko bertsoan, *El ultimo verano de Boyita* filma ikusteko aukera egongo da gaur Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean.

### Langileen manifestazioa gaur 12:00etan

**EKONOMIA** » Maiatzaren 27an hasitako greba deialdiekin jarraituz, Gipuzkoako Grafikagintza sektoreko langileek greba egunak burutuko dituzte gaur eta bihar. Greba egun hauek herrialdeko hitzarmenaren defentsan deituta daude, izan ere, mahai negoziatzailea blokeatuta dago «Adegiren jarrerak probokatzaila eta atzerakoierengatik». Horrela azaldu dute LAB, ELA eta CCOOek: «Gaur egungo hitzarmenaren muinarekin bukatu nahi du neurri atzerakoiez beteriko hitzarmen berri bat aurkeztuz». Mobilizazio garrantzitsua gaurkoa izango da eta Tolosako Trianguloatik 12:00etan irtegarria izango da manifestazioan.

### Realeko jokariak Tolosatik pasako dira

**FUTBOLA** » Realak gaur egingo du autobusean Gipuzkoako ibilaldia, Espainiako Lehen Mailarako igogera jarraitzaileei eskertzeko. Hasiera batean herenegun ziren egitekoak, baina Eusko Jaurlaritzak astelehenean hurrengo egunetarako alerta horia eman zuen euria eta haizeagatik, eta ibilaldia atzeratu egin behar izan dute. 09:30ean Zubietatik irtegarria da eta 10:00etan iritsiko dira Tolosara. Ondoren Ordiziara joango dira.

### Gaur, Nothink taldeak kontzertua eskainiko du

**MUSIKA** » Bonberenean Nothink talde madrildarrak kontzertua eskainiko du gaur 22:30ean. Euren disko berria aurkeztuko dute Tolosan, *Hidden State*. Taldearen hirugarren diska da eta ekainaren 7an kaleratu zuten. Bonbereneatik azaldu dutenez, «osteguna izateak berdin du, kontzertu izugarria izango baita».

### Venta de Baños eta Tolosa bat eginik Usabalen

**SENIDETZA** » Venta de Baños (Palencia) eta Tolosa elkartuko dituen ekitaldia hilaren 20an, igandean, egingo dute Usabal kiroledegian, 13:00etan. Ekitaldiko amabizitza Eduarne Pasaban eta Marta Domingez korrikalaria izango dira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

### Elkarrizketa

XABI ALONSO | Futbolaria



**Brasilen aurteki dagu...** Ez dakit ba. Baina badakizki erantzukizunez jokatu behar dugula. Presioa sentzi daiteke, bai, baina gure taldearen errespokoa bizi gara; beraz, ohituta gaudu. **Baina irabazteko faboritoak zarete?** Ez dut uste. Irabazteko hautagai sorta bat dagu: Brasil, Ingalaterra, Argentina, Italia, Alemania... Edo guzuz. Baina gure maila berean jarrikotutak.

**«Final-zortzirenetan Brasilen kontra ez jokatzea aukeratuko nuke»**

Luis Aragonesek eraman zuen Espainia puntara. **Vicente Del Bosquek** harrotasun jarraitzen eman dio. **Baina zer ematen zion betek aldeari, eta zer besteez? Esaten dien bezain ezberdink al dira?**

Nortasunari dagokionez, bai, oso ezberdink dira. Baina futbol konstante antzeko filosofia daukate. Adibidez, garrantzia ematen diote ekimena hartzeari, partida kontrolatzeari, eta defentsaren zela arretzekoan arretzekoari. Aragones nortasun gogorrekoa da, baina txantxa batekin giroa hasi ten arretsa hartzen. Del Bosque, berriz, lasiagoa da. Ez dauka Aragonesen atertaldik, baina gertulakoa da.

**«Entrenatzeak modua asko aldatu al da?»** Bakotzak bere lan egiteko modua dauka, eta bai, pika bat aldatu da. Dena den, bi urte daramatzagu ia Del Bosqueekin, eta ohituta gaudu.

**Batsuetan defentsaren aurteki jokatu izan duzu, aingura gtsa. Beste batsuetan, aldiz, euskarri balarraren aurteki, lau lerroren erdian. Zati non sentitzen zara gusturago?** Nik normalean ainguragisa jokatu izan dut, zela erdia baino pikiat arerago, alegia. Baina azkeneko partidetan apur bat aurrerago aritu naiz. Dena den, toki batean edo bestean jokatuta ere, entrenatzaileak askatasun ematen dit. Esaten diti badakidala zeintzuk diren nire erantzukizunak, baina erantzukizunarekin joka dezadala. Momentuaren arabera, arerago edo aurrerago jokatzen dut. Entrenatzaileak askotan hitz egiten du nirekin, eta askatasun eman diti unek eskatzen duen baldintzeta eragokitzeko.

**«Espainiko selekzioak erreferentziatzaile bat zara, hortaz, ematerikoen artean edo iritza ematerikoen pisu handiena dutenetako bat...»** Tira... Kontuta da urte dezentetan diredi jada debutatzen auzuetan. Ez nuke esango besteez baino pisu handiago dudanik; aldagaiten, baina badauket, igual, eskarmentu handiagoa. Hori bai, erabakirik

## «Nortasun propioko talde bat sortzeak meritu handia dauka»

**Tolosa** Espainiako selekzioaren ikurretako bat da. Badaki faboritoen artean daudela, baina gauzak «oso-oso ondo» ateratzen behar zaizkie.

### IGOR SUSAIETA (BERBIA)

Metroak gaitunditu behar direnean, pase luzea eta neurtsa. Motzean beharrekoa dena, baina onera. Erirrimoa bihurtu behar dela? Kontrolatu eta eman. Eta atzerago jarri behar bada, bitan pentsatugabeja.

Hilakoz da Xabi Alonsoen jokoa (Tolosa, 1981). Erdilari bikaina batena. Izugarri hazi da 22 urte zirela Realen artean zeneik, eta jada Espainiako selekzioaren ikurretako bat da. Zazpi urte pasa dira debuta egin zuenetik. De Pedro eta Aranzabal taldeak ere haseretik aritu ziren egun hartan. Hatak baino bide oparago ibili da, ordea. Liverpoola, Anfidokko, The Kop-eko magia faltan duela dio. «Harro nago han pasatako urteez». Real Madridera ondo ohi-tuta, ordea. «Ez dit garrantziarik ematen gure jardunak sortzen duen oihartzuari». Jokatzan duen tokian, erreferentzia. Espai-

nianekin titulak izango dela dirudit. **Espainiako selekzioarekin partidak gehien jokatu dituen artean hainak lagarreen jokalariz zara. Jada 69. Ba al zenekien? Zer sentitzen du hortatikinda?**

Rik ezberdientzaren artean zintzenik. Orain gutxi esan zidaten goian nengozela zerrenda horretan, eta, egia esan, ezustekoa hartu nuen. Ez dakit, pentasetan duna jokalaritako esango direla 60 partidak baino gehiago jokatu dituztenak. Pogorriada dena den. Atzeratzen hasi jarri, eta kontratuzen zara urte asko daramatzazula Espainiako selekzioarekin jokatzen.

**«Entrenatzaileak eskatasuna ematen diti unek eskatutakora egokitzeak»** Erabarteko joko hari, Munduko Kopan ere puntara balizko ilusioa dauka, baina ondoak dakigu oso zaila dela. Izan ere, guzuz oso-oso ondo ateratzen behar zaizkizu Munduko Kopari irabazteko. **Konfiantza zapiatu duzu Espainiako selekzioarekin ematen auzuetan auzuetan auzuetan. Ez da izango, behar bada, seguru taldea orain dela sei urtekoa baino hobea dela?**

Komparatzea zaila da... Oraingoselekzio oso ona da, eta, ziurrenik, gaur egungo orain urte batzuetako baino hobea da, bai. Espainiako selekzioa jokalarit gehienak ezinbestekoak dira beren taldeetan, eta talde horiek, guinera, gaitulakoak dira... Jokari berari dagokionez, bestalde, oso ona da. Gustura jokatzen dugui, eta hori dauka emateak. Estadio horri ongi behar gogokioke.

**2006ko azaroan Erumanianaren kontra gaitu zuen Espainiak, Geroztik 45 partidak, porrot batzara eta hiru berdinketa baino ez. Nolatan? Marka handia da gero...**

Bai, bai, marka bikaina da, egia esan... Iazko udan Konfederazio Kopan AEBen kontra gaitu aurretik, 25 partidak irabazi genituen jaraman. Zaila da, oso selekzio onak daukela. Baina taldeak ondo funtzionatzen du, gustura sentitzen gara gure artean. Ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin egualditan edo entrenatzen, eta giroa nahiko normala da. Horrek asko laguntzen du. **Munduko selekzio onena da Espainiako? Munduko Kopa irabazteko apustuetan, behintzat,**

**Egun, Bartzelonak edo Espainiako selekzioak bezala jokatzen ez dela ondo egiten. Zuk zer iritza duzazu?** Nire ustez, Chelsea eta Manchester Unitedek, esaterako, oso ondo jokatzen dute eta Real Madrideren partidak ongi jokatzen dituzte. Bartzelonak titulua mordos irabazi du bi kaitu jokatuta. Baina talde bakoitzak jokalarit ezberdink dauka, dola-hin diferentiek dituztenak. Eta horiei ateratzen behar zaie etekina. Inter Milanena, adibidez, txapela

**«Niri 4-1-4-1 joko erudia dezentet gustatzen zait eta ueste dut Del Bosqueri ere asko gustatzen zaiolara»**

ondo kontrolatzeko aukera. Azkeneko partidetan eredu hori erabili dugu, eta ueste dut Del Bosqueri asko gustatzen zaiola. Hala aritko garaela esango nuke. Dena den, bi aurretari ere zela iratitu dituzte: Villa-Torres, edo Llorentzenekin. **Normalean, Xavi izaten duzu aldoan. Hura gabe jokatzeko beste modu bat edukiko luke Espainiak...**

Ez dakit zer esan... Xavi oso berezia da. Hark daukan kalitatea... Oso erraz ikusten da futbolak, baina goretzen du baloia... Parekorik ez dauka munduan. Baina Cesc edo Iniesta antzekoak dira lan horretan, beraz... Xavi bezalako jokalarit bat gabe aritzea guk baino gehiago nabarrituko luke beste edozein selekzioak.

### Soka motzean

**Zer dakizu Hegoalrikari buruz?** Hainbat eskubiltza eduki duen herrialde bat dela. Oso intentsua. Paisieki dagokionez, oso polita da. Munduko Kopari hain jokatzaile Afrikari bultzada emango dio. **Zer dakizu Nelson Mandelari buruz?** Askien urtetostan munduan egon den pertsona saririk garrantzitsuenetakoa da. Oso argia. **Zer eraman duzu irakurteko?** *El Chino*, Henning Mankellena. Eta Iñigo Gurrutxagak idatzitako *Scumborpe hasta la muerte*, Alex Garcia-Cabon idazle jokalarit irakurri zizarrar buruzkoa da. **Eta entzuteko?** Denetik: Joaquín Sabina, Andrés Calamaro, The Killers, Coldplay. **Nor eman nahi duzue eskua?** Mandelari, adibidez. **Eta nor ez duzu paretan ituzi egin nahi?** Ez daukat halako fobiarik. **Zain jokalarit duzu gogoko?** Iniesta, gogorrik. **Eta nor emango du ezustekoa?** Ez naiz oso originala izango: Van Persiek.



zure aurrezkiak eta zure jendearen osasuna zaintzen ditugu.

bikoitza da zure onura

# Larunbateko betizu jaterako txartelak salgai

**Ugarte** » Larunbatean betizu jatea egingo dute zortzigarren urtez. Betizua Joseba Zubeldia ugartearrak erreko du.

## ERREDAKZIOA

Ugarten larunbatean zita garrantzitsua dute auzotarrek. Zortzigarren urtea dute, betizua su gainean poliki-poliki erre eta mahai inguruan biltzen hasi zirenetik.

Hasierako urteetan betizua erretzeko pertsona bat kontratatzen zuten. Baina azken hiru urteetan, Joseba Zubeldia ugartearra rena da ardura. Antolatzaileen esanetan «han eta hemen galdetuz ikasi zuen erretzen eta oso ondo erretzen du betizua».

Ostiraletik larunbata bitarteko goizaldean hasiko da Joseba Zubeldia lagun talde batekin lanean. 02:00etan, sua piztuko dute. Suak beharrezko indarra hartzen duenen, betizua burdinezko makilean

zabaldua jarriko dute. Buelbaka gozo-gozo erreko da larunbateko eguerdia bitartean.

Hamabi ordu geroago, 14:00etan pilotalekuan bilduko diren bazkaldarren plateran egongo da betizua. Lehenengo txorizo egosia jango dute eta gero betizua entsaladarekin. Baita postrea eta kafea ere. Edaria ere nahi adina egongo dela azaldu dute antolatzaileek.

Bazkaria Ugarteko trikitilarietk girotuko dute. Bazkalostekoan ere, bertsoak botatzera animatuko denik izango da.

Pasa den urtean 100 pertsona bildu ziren betizu egunean. Aurreten ere beste hainbeste jende espe-

## » DATUAK

- **Zer.** Betizu jatea Ugarten.
- **Noiz.** Ekainaren 19an, larunbata.
- **Txartelak.** Ostirala bitartean salgai Goikoetxeanea tabernan.
- **Prezioa.** Helduek 30 euro eta gazteek 15 euro.

ro dute eta ugartearrak ez ezik, kanpotarrak ere gonbidatzen dituzte antolatzaileek. Txartelak, ostirala bitartean salgai egongo dira Ugarteko Goikoetxeanea tabernan. Helduek 30 euro eta gazteek 15 euro ordaindu beharko dute.

## Egun polita auzotarrentzat

Ilusioz antolatzen dute egun hau Ugarteko elkarteek. «Lan asko egin behar da, baina denak elkarrekin bazkaltzea oso polita da. Ugartetik kanpo bizi diren auzoarrak ere elkartzen dira eta polita izaten da. Giro ona egoten da gainera eta jendeak asko eskertzen du hau».

Urtero Elkarteko batzordea aldatu egiten da, baina urtero egiten diren bost ekitaldiak sakratuak dira auzotarrentzat.

Beti ere mahairen bueltan biltzen dira, umore onean; Emakumeen Eguneko bazkarian, sagardotegira egiten duten irteeran, betizu janean, udazkeneko gaztain janean eta Santa Luzian, jostunen eguna ospatzen dutenean.



## Musikarekin agurtu dute ikasturtea

**IKAZTEGIETA** » Guraso eta herritarren aurrean agurtu zuten kurtsoa musika eskolako 15 ikasleek. Lazkao Txiki Musika eskolakoak izan dituzte irakasle eta kurtsoan zehar, gitarra, trikitixa, biolina, zeharkako txirula eta pianoa ikasi dituzte. Atzoko emanaldian abesti herrikoia eta ezagunak eskaini zituzten, baita bertsoak ere. AGURTZANE BELAUNZARAN

## Amezketako plenoan gai ugari aztertuko dituzte gaur arratsaldean

### ERREDAKZIOA

Gaur 20:30ean egingo den plenoan 12 puntu aztertuko dituzte Amezketako Udalean. Hauen artean obrak egiteko zenbait lizentzia eskatuko dira.

Puntu aipagarrienak hauek izango dira: 2010eko Plan E barnean sartzen den herri barruko sare en instalakuntza berritzeko eta zoru berria jartzeko proiektuaren esleipena; udalerriko eremu hondatuak berreskuratzeko jardueren proiektuaren esleipena; pasa den urteko Kontu Orokorrak eta Udal Ondasunen Zerrendaren onarpena; eta erabilera anitzeko aretoan egin beharreko inbertsioak egiteko Udala eta Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenaren aldaketa.

## Albizturren Clown emanaldiak itxiko du kultur emanaldiak

### ERREDAKZIOA

Maiatzean hasitako kultur ekitaldiei amaiera emateko, ostiral honetan, clown emanaldia izango da. Chiclowinna izena du obrak eta barrez lehertu nahi duenak, hitzordua 20:00etan du udaltekoko areto nagusian.

Pailazo bati buruzko ikuskizun honetan, internet bidez eskuratutako torero jantzi batek hankaz gora jarriko dio bere egunerokotasuna. Eszenatokia zezen-plaza bihurtzen da horrela eta bere torero dohainak erakusten ditu pailazoak. Zezenaren aurrean bizirik mantentzeko jolasean, publikoa barrez edukiko du. Aitziber Bilbao da antzezlea, zuzendariak, Ana Luisa Cardoso eta Itxaso Azkarate dira.



Betizu jatean 100 lagun bildu ziren pasa den urtean pilotalekuan. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHOZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Igandean Villabona-Zizurkil nesken 6. Sari Nagusia izango da

**Txirindularitza** » Nesken Gipuzkoako Txapelketa jokatu da, kadete, junior eta elite mailan. 10:00etan emango zaio irteera.

**ENERITZ MAIZ**

Atzo aurkeztu zuten Zizurkilgo Udalean igandean izango den Nesken Gipuzkoako Txapelketa. Bertan antolatzaile lanetan ibili diren, Patxi Altuna eta Agustín Pagola izan ziren Maria Angeles Lazkano alkatearekin batera. Zizurkil-Villabona 6. Sari Nagusia jokatu da eta irteera 10:00etan emango diote. Antolatzailean artean, Villabonako eta Zizurkilgo Udalak eta Irintzi eta Urkamendi Txirindulari Elkarteak daude.

Horiek horrela, Nesken Gipuzkoako Txapelketa hiru mailatan

banatuta egingo dute: kadete, junior eta elitekoak. Euskal Herriko txirindulariez gain, bi gorpilengainean ibiliko direnak estatu mailakoak ere izango dira: Asturias, Valencia, Murcia... Guztira, 80 bat txirindulari lehiatuko dira. Gainera, Euskaldun Trofeorako puntuagarria izango da Villabona-Zizurkil 6. Sari Nagusia.

Antolatzaileek, lasterketa «politabaina, era berean, gogorra» izango dela adierazi dute. Ikusleentzat ere lasterketa guztiz egokia da, leku beretik behin baino gehiagotan igarotzen direlako.

Lasterketari hasiera kadeteen mailako txirindulariekin emango diote 10:00etan Villabonako Iru Aldetan. Helmuga berriz, Zizurkilgo Pásus Plazan izango da. Lehenengo kadeteak aterako dira eta 38 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Zizurkilgo helmugara



Pagola, Lazkano eta Altuna lasterketaren aurkezpena egiten. E. MAIZ

11:00ak aldera iritsiko direla aurreikusten da. Junior eta elite mailakoak berriz 10:22an aterako dira Villabonako irteeratik. Juniorrek, 74 kilometroko lasterketa egin beharko dute eta Zizurkilgo helmugara, 12:10ak aldera iritsiko dira. Eliteko txirindulariek berriz, ia 100 kilometro egin beharko dituzte. 12:52ak inguruan iritsiko dira helmugara.

**Lasterketako ibilbidea**

Lasterketako ibilbidea, N-1 errepidean saihestuta egin behar izango dute. Ondorioz, ibilbide berdinean buelta bat baino gehiago eman be-

harko dituzte. Lehenik eta behin, Villabonatik irten eta Asteasurako bidea hartuko dute. Ondoren, Zizurkil Gora igoko dira eta Adunako bidegurutzetik barrena, berriz ere Villabonara itzuliko dira. Kadeteek hiru aldiz egin beharko dute itzuli bera.

Juniorren kasuan, behin hiru itzuli eman ostean, Sorabillarako bidea hartu eta Andoaindik barrena, Urnietara joango dira. Xoxokako gainetik pasa eta berriz Villabonara itzuliko dira Zizurkilgo helmugan bukatzeko. Elitekoek aurrera jarraitu beharko dute eta beste bi itzuli egin beharko dituzte

**» 6. SARI NAGUSIA**

**Gipuzkoako Txapelketa**

■ **Kadeteak.** 38 kilometro egin beharko dituzte. 10:00etan aterata eta 11:04 minutuan helmugaratuko dira gutxi gorabehera.

■ **Juniorrak.** 73,7 kilometro egin beharko dituzte. 10:22an emango atera eta 12:10an helmugaratuko dira.

■ **Eliteak.** 99,8 kilometro egin beharko dituzte. 10:22an irten eta 12:52an iritsiko dira helmugara.

**Lasterketaren ibilbidea**

■ **N-1 saihestuta.** Asteasurako bidea hartu eta Zizurkil-Gora igoko dute behin baino gehiagotan Villabonatik pasa eta berriz buelta egiteko. Elite eta juniorrek Sorabillarako bidea hartu eta Xoxoka Gainetik pasa beharko dute. Eta eliteko mailakoek beste bi aldiz igoko beharko dute Zizurkil Gora.

■ **80 txirindulari.** Gipuzkoa eta Euskal Herriko txirindulariez gain, estatu mailakoak ere izango dira lasterketan.

Zizurkil Goratik pasaz. Olaberria tarteko, izen handiko txirindulariak ere izango dira.

Txirindulari neska hauek mehezko dute, errepide bazterrean, oihu, txalo eta animoak jasotzea. Ea eguraldia lagun izaten duten.

# Ostiralean hasiko dute Asteburu Kultura

**Henialde** » Hitzaldia, herri kirolak, asto jatea edota mendi ibilaldia izango dituzte. San Joan sua ere egingo dute.

**E. MAIZ**

Urteko egunik luzeena iristear den honetan Hernialden Asteburu Kulturala prestatu dute. Hitzaldia, herri kirolak, asto jatea eta mendi ibilaldia izango dituzte.

Hasiera bihar bertan emango diote Koke Lasaren hitzaldiarekin. Liburutegian izango da eta 20:30ean hasita, *Shisha Pangma*

*Bide Britaniarra* izango da jorratuko duen gaia.

Larunbatean, 12:30ean herri kirol emanaldia izango dute herriko plazan eta besteak beste, Joxe Mari Olasagasti izango da. Ondoren, herriko frontoian, asto jatea egingo dute. Giroa alaitzeko, trikitilariak izango dira.

Tripa bapo bete ostean, hurrengo eguna, mendi ibilaldi eder bat egiteko aprobetxatuko dute. Ibilaldian, Hernialden bertan duten kobazulotik pasako dira eta bertara sartuko dira. Mendi buelta egin ostean, inoiz falta ezin den hamaketako egingo dute. Hori herriko elkartearen egingo dute.

**San Joan bezpera**

Asteartean, herri askotan bezala, Hernialden ere, San Joan sua piztuko dute herriko plazan.

Sua piztu aurretik girotzeko, zahagi ardoa egingo dute. Kasu honetan, ardoa Udalak jarriko du eta jatekoa norberak eraman beharko du. 22:30ean, sua piztuko dute eta herriko dantzariak emanaldia egingo dute. Herritar guztiak parte hartzeko deia luzatzen diete.

**» ASTEBURU KUTRALA**

**Hilak 18, ostirala**

■ **21:30ean.** *Shisha Pangma Bide Britaniarra*, hitzaldia Koke Lasaren eskutik.

**Hilak 19, larunbata**

■ **12:30ean.** Herri Kirol emanaldia, Jose Mari Olasagasti bertan dela.  
■ **14:00etan.** Asto Jatea herriko frontoian trikitilariekin.

**Hilak 20, igandea**

■ **09:30ean.** Mendi ibilaldia. Hernialdeko kobazuloan sartuko dira. Ondoren, hamaketakoa.

**Hilak 23, asteartea**

■ **20:00etan.** Zahagi ardoa. Jatekoa norberak eraman beharko du.  
■ **22:30ean.** San Joan sua herriko dantzarien emanaldiarekin.



Iaz ere Asto jatea egin zuten herriko frontoian. A. IMAZ

Antzientz kategorian artikulu guztiak, ekainaren 21a bitartean, bidalketa gastuak doan!

www.euskalherriko PLaza.com

Eusko Herriko Plaza Oritsua

SHISHA PANGMA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 034. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitza/Leitza beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



## Goienetxen egina denentzat ikusgai

**TOLOSA** ■ Gureak taldeko Goienetxe fundazioko eguneko zentroko kideek urtean zehar egin dituzten lanak jarri dituzte ikusgai GKO Gallery-n. Bihar arte izango dira bertan, eta ikustera joaten direnek erakusketaren inguruan euren iritzia emateko koadernotxoare jarri dute, «Gustatu al zaizu?» galderari erantzuna

emateko. Denetariko lanak topa daitezke bertan: pintura lanak, zeramika lanak, artilezko lanak, collageak, puzzleak... eta euren egileek harrotasunez erakusten dituzte. Gainera, Tolosako Goienetxe fundazioko kideenak ez ezik Gipuzkoako beste zentroetako lanak ere jarri dituzte. ir.

## A Agurrak



**Zorionak!**

**Aitona Juanito.**

Gaur 80 urte. Muxu handi bat, Eider eta Oihanen partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker,

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** bertako egunkaria

egin zaituz harpidedun!

**902-82 02 01**  
(Asteunetan 09:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

**www.tolosaldeko-hitza.info**

eraman/bidali izen-emata orria:  
Arabako etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31890 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Ahaztuta 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babateko, batak, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HEDABIDEAK S.L.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, eragilek dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezarritako eta kontrako egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSALDEKO HEDABIDEAK S.L.-Arabako etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info

## A Agenda

### Bilerak

■ **Tolosa.** San Joan eguneko xehe-tasunez hitz egiteko, eskopetarietako kapitainen bilera Batasuna elkartean 20:30ean.

### Ikus-entzuzekoak

■ **Tolosa.** Jose Mari Sasietaren argazkiak proiektatuko dira Halduen Heziketa Iraunkorrean, 17:30ean.

■ **Tolosa.** Bidezko merkataritza buruzko *Black Gold* dokumentala, eta ondoren solasaldia Alboan-ek antolatua, 20:00etan Kultur Etxean.

### Deialdiak

■ **Anoeta.** San Joan bezperako afari herrikoa plazan. Izen-ematea, hilaren 18ra arte, plazan edo kiroldegian, zenbat mahai beharko diren jakin ahal izateko.

■ **Tolosa.** Ekainaren 29rako Gazte Topagunearen irteera Arcachonera. Izen-ematea, Kultur Etxean.

■ **Tolosa.** TAKEK 3x3 saskibaloi txapelketa antolatua du etzirako, alebin, infantil eta koadrilentzat. Parte hartzeko [www.takesb.com](http://www.takesb.com) webgunera jotzea nahikoa da.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Kultur tailerretako ikasleen erakusketak Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** Gureak taldeko Goienetxe fundazioko eguneko zentroko kideek urtean zehar egin dituzten lanekin *Gustatu al zaizu?* erakusketara osatu dute GKO Gallery-n.

■ **Tolosa.** *Aluminum* erakusketak Fronton jatetxean, aluminiozko eskulturak eta koadroak.

### Musika

■ **Aduna.** Loatzo Musika Eskolako ikasleek kurtsu amaierako kontzertua 18:30ean elizan. Kurtsoan ikasitako denen aurrean erakusteko aukera izango dute musikari gazteek, trikitixa, txistua, biolina... bezalako instrumentuak joz.

■ **Tolosa.** Nothink musika taldearen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

### Zinema

■ **Tolosa.** *El ultimo verano de la Boyita* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Eskuratu liburua  
**ekainaren 30a**  
bitartean  
**12 euro**ren  
truke.

BERRIaren  
harpidedunentzat  
**eskaintza berezia:**  
**6 €**

*Amesgaiztoa*  
Egunkaria auziko epaiketaren kronika

Pello Herreru **berria**

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu  
[www.berria.info](http://www.berria.info)  
harpidetza@berria.info  
943-30 43 45

AUKERA EZAZU,  
BIZI EUSKARAZ  
**berria**